

Iñaki Alberdi Iparragirre, Idiazabalgo udaleko alkateburuak, apirilaren 7ko Toki Erakundeetako 2/2016 Legearen 25.7 atalak eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikuluan xedatutakoaren arabera

IKUSIRIK

Deialdi hau egokitzen zaio Diru laguntzen Plan Estrategikoari-Gizarte ekintza 01/2025 lerroa-2024ko azaroaren 28an Osoko Bilkuran onartua.

Diru-laguntzen 2025eko Plan Estrategikoak garapenerako lankidetzarako diru-laguntza lerro hau jasotzen du, 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, 17. 1. 37 artikulua xedatutakoaren arabera, udal eskumen propioa da «Garapenerako lankidetzaren alorreko politikak planifikatzea, antolatzea eta kudeatzea»

Diru-laguntza horren oinarrien behin betiko onarpenaren iragarkia argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2019ko maiatzaren 29an (100. zenbakian).

AINTZAT HARTURIK

Eskumena. Diru laguntza, transferentzia eta diru emate araubidea erregulatzeko ordenantza orokorraren 10. artikulua honakoa dio:

“Deialdia onartuko du Alkate-udalburuak eta han bertan sartuko dira diru laguntzak emateko oinarriak eta iragarri egingo da. Eskerak aurkezteko epea eta modua deialdian zehaztuko dira”.

Araudia

- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea
- Apirilaren 7ko 2/2016 Euskal Tokiko Erakundeei buruzko Legea
- Azaroaren 17ko 38/2003 Diru laguntzen Lege Orokorra
- Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua.
- Diru laguntza, transferentzia eta diru emate araubidea erregulatzeko ordenantza orokorra. (GAO::2017/04/25ean argitaratua, 78. zkia).
- Diru laguntzen Plan Estrategikoa-Gizarte ekintza 01/2025 lerroa-, 2024ko azaroaren 28an Osoko Bilkuran onartua.
- Diru laguntzaren oinarriak (Osoko Bilkurak, 2018ko abuztuaren 9ko ezohiko bileran onartutakoak).

Publizitatea

a) Diru laguntzak eman baino lehen, haiek erregulatzen dituzten oinarriak onartu behar direla, aipatu legeak ezarritako terminoetan, eta dagokion Aldizkari Ofizialean argitaratu. Bestetik, lege bereko 17.2 artikulua hauxe dio: “... diru laguntzak erregulatzen dituzten oinarriak onartu behar direla aurrekontua exekutatzeko oinarrien markoan, Diru laguntzen Ordenantza Orokor baten bidez edo diru laguntza modalitate bakoitzaren ordenantzaren bidez”.

b) Azaroaren 17ko 38/2003 Diru laguntzen Lege Orokorra.18 atalak zera dio: “La publicidad de las subvenciones concedidas por Entidades Locales de menos de 50.000 habitantes podrá realizarse en el tablón de anuncios. Además, cuando se trate de Entidades Locales de más de 5.000 habitantes, en el Diario Oficial correspondiente se publicará un extracto de la resolución por la que se ordena la publicación, indicando los lugares donde se encuentra expuesto su contenido íntegro”.

Hau guztia kontuan harturik,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa. Garapenaren aldeko nazioarteko lankidetzarako eta garapenerako sentsibilizazioa edota hezkuntzako jarduerak burutzeko diru laguntzak emateko 2025eko deialdia onartzea.

Bigarrena. 25.000 euroko gastua onartzea 1 481.00.230.00 2025 aurrekontu aplikazioari egotzia.

•Herrialde txirotuetan garapenerako lankidetzak proiektuak burutzeko diru-laguntzak 20.000 euro.

•Idiazabalen garapenerako sentsibilizazioa edota hezkuntzako jarduerak garatzeko diru-laguntzak emateko: 5.000 euro.

Hirugarrena. Deialdiaren laburpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Laugarrena. Deialdia Diru laguntzen Datu-Base Nazionalari igortzea, azaroaren 17ko Diru laguntzen 38/2003 Lege Orokorren 20.8 artikulua xedatutakoari jarraituz.

Bosgarrena. Kontabilitate-unitateari horren berri ematea.

Nire aurrean,

ALKATE-UDALBURUAK

Iñaki Alberdi Iparragirre

IDAZKARI KONTU-HARTZAILEAK

Garazi Arraibi Larrea

